**Zk-1005**

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 18koa, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuarena, Hernaniko hirigune zaharra osoan bereoneratzeko eremu deklaratzen duena.

Hiritu eta eraikitako ondarea bereoneratzeko diren babestutako jarduerei buruzko Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 214/1996 Dekretuaren 17. artikuluak bi betekizun zehazten ditu multzo jakin bat Osoan Bereoneratzeko Eremu deklaratzeko: alde batetik, Bereoneratzeko Plan Berezia behin betiko onartzen duen erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta dagokion Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratu beharra eta, bestetik, planaren eraginpean dauden udalek Bereoneratzeko Hirigintza Sozietate bat eratu beharra.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak 1997ko irailaren 23an behin betiko onarpena eman zion Hernaniko hirigune zaharra Bereoneratzeko Plan Bereziari eta onarpen hori 1997ko urriaren 9an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta 1997ko urriaren 31n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Hala ere, 214/1996 Dekretuaren 17. artikuluak onartzen du ez dela beharrezko beharkizuna izango bereoneratzeko hirigintza elkarte bat osatzea, multzoren bat Osoan Bereoneratzeko Eremu deklaratzeko, salbuespenez eta Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuak berariaz horrela onar dezanean.

Artikulu horri jarraituz, aipatutako hirigintza sozietatea eratu ez bada ere, Sail honetako Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzak aldeko irizpena eman dio deklarazioari.

Horiek horrela, Hernaniko hirigune zaharrean uztailaren 30eko 214/1996 Dekretuan ezarritako betekizunak betetzen dira; beraz, osoan bereoneratzeko eremu deklara daiteke.

Gai horretan erabilgarri diren legeak ikusita, honako hau

XEDATU DUT:

Hernaniko hirigune zaharraren multzoa Osoan Bereoneratzeko Eremu deklaratzea. Osoan Bereoneratzeko Plan Berezian zehaztutakoa da eremuaren zedarriketa. Plana 1997ko irailaren 23an onartu zen eta dagokion planoa agindu honen eranskinean agertzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko urtarrilaren 18a.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza
eta Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

**N°-1005**

ORDEN de 18 de enero de 2000, del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, sobre declaración del casco histórico de Hernani como Área de Rehabilitación Integrada.

El artículo 17 del Decreto del Gobierno Vasco 214/1996, de 30 de julio, sobre actuaciones protegidas de Rehabilitación del Patrimonio Urbanizado y Edificado, establece como requisitos para la declaración de un conjunto como Área de Rehabilitación Integrada, tanto la publicación del correspondiente acuerdo de aprobación definitiva del Plan Especial de Rehabilitación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico correspondiente, como la constitución de una Sociedad Urbanística de Rehabilitación por las Corporaciones Locales afectadas.

En los Boletines Oficiales del País Vasco de 9 de octubre de 1997 y del Territorio Histórico de Gipuzkoa de 31 de octubre de 1997, se ha publicado el Acuerdo de 23 de septiembre de 1997 del Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, a través del cual se otorga la aprobación definitiva al expediente del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Hernani.

No obstante el art. 17 del Decreto 214/1996, permite que excepcionalmente, cuando así lo admita expresamente el Consejero del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, no será preciso la constitución de una Sociedad Urbanística de Rehabilitación como requisito para la declaración de un conjunto como Area de Rehabilitación Integrada.

En virtud de dicho artículo, se ha emitido informe favorable a la declaración por parte de la Dirección de Planificación y Gestión Financiera de este Departamento aunque no se ha constituído la citada Sociedad Urbanística.

Se desprende de todo ello que concurren, en relación con el Casco Histórico de Hernani, los requisitos exigidos por el Decreto 214/1996, de 30 de julio, para proceder a la declaración de tal conjunto como Área de Rehabilitación Integrada.


Vista la legislación aplicable,

DISPONGO:

Declarar el conjunto del Casco Histórico de Hernani como Área de Rehabilitación Integrada de acuerdo con la delimitación recogida en el Plan Especial de Rehabilitación Integrada del mismo, aprobado mediante Acuerdo de 23 de septiembre de 1997 y que figura como plano anexo a la presente Orden.

En Vitoria-Gasteiz, a 18 de enero de 2000.

El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda
y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.


HERNANI
AREA DE REHABILITACION INTEGRADA
OSOA BERREONERATZEKO EREMUA